

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	30 - Bidegi, S.A.
Atala:	3010 - Bidegi, S.A.
Programa:	100 - Errepideen Eraikuntza eta Hobekuntza
Funtzionala:	453 - Errepideak

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako AP-8/AP-1 autobideen eta goi-mailako errepideen, beren instalazioen eta azpiegitura horiekin erlazionatutako jatorriko zerbitzuen (zerbitzuguneak eta garraio zentroak) mantenu, kontserbazio eta ustiapena egiten dugu, hobekuntza beharren identifikazioa eginez eta kasuan kasu behar diren zerbitzuak azpikontratatzuz, kudeatuz eta egindako lana gainbegiratzuz. Honekin guztiarekin lortu nahi dena da autobideen erabilpen segurua eta eroso bermatzea.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

AP-8/AP-1, N-1/A-15 eta A-636 autobideek Gipuzkoako gaitasun handiko errepide-sarea osatzen dute, eta, aldi berean, Europako errepide-sarearen zati dira.

2022ko ekitaldiari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da:

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sarean guztira zenbatutako ibilgailu/kilometroko: 1.347.258.140 ibilgailu/kilometroko

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sarean guztira zenbatutako kanon bidezko diru-sarrera garbiak: 155.407.995 euro

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sarean guztira zenbatutako bestelako ustiapen-sarrerak: 9.555.120 euro

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sareko azpiegituraren ohiko mantentze- eta kontserbazio-lanez arduratzen den operadorearen kostua: 40.314.791,59 euro. Zenbateko horrek barne hartzen du 2022ko ekitaldiko likidazioaren aurreikuspena: 797.205,11 euro BIDEGIren alde.

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sarean besteak beste egindako inbertsioak eta berrinbertsio/ezohiko mantentze-lanak:

- Zarataren aurkako pantailak jartzen hastea Erretereria parean.
- A-636 errepideko bide-zoruaren egitura birgaitzea, 0+000 eta 5+200 KPen artean.
- Zarautz Barrera eta Zarautz M/O-ko kobrantza-gunea berritzea.

Finantza-maileguei dagokienez, 2022ko abenduaren 31n zor biziaren zenbatekoa: 544.173.214,48 euro

N-1/A-15 errepide-sarean etenda egon da 2022an salgaien garraiorako ibilgailu astunen erabileragatiko kanonaren kobrantza. Egindako inbertsio nagusia: N-1 eta A-15 errepideak kobratzeko sistema zabaltzea (5/2021 Foru Araua).

Beharraren eboluzioa:

Urteko ustiapen- eta kontserbazio-planen etengabeko garapena.

Erabiltzaileari arreta optimizatzea.

Finantza-betebeharrak betetzea.

Azpiegituren egoera eta emandako zerbitzua optimizatzeke beharrezko inbertsioak eta berrinbertsioak egitea.

Nori zuzendua:

Gipuzkoako gaitasun handiko bide-sarearen erabiltzaileak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, baliabideko teknologikoak eta aholkularitza teknikoak.

Gipuzkoako gaitasun handiko bide-sarearen azpiegitura. Kudeaketa-tresnak.

2. Garatu beharreko

Ohiko ustiapen- eta kontserbazio-planak idaztea.

Planak garatzea: proiektuak eta obrak gauzatzeko azpikontratazioak kontratatzea eta gainbegiratzeta.

Aurrekontua definitzea: gastuak, inbertsioak... horretarako behar diren aurreikuspenak eginez (trafikoak, diruzaintzako aurreikuspena...).

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Bide-mugikortasuna, bidesari-sistema dinamiko berritzaileak.

Programaren arau esparrua:

- 1/2006 Foru Dekretua, ekainaren 6koa, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duena.
- Bidegiren eraketaren 43/2002 Foru Dekretua.
- 7/2002 Foru Araua. Bide azpiegiturak erabiltzeko kanona eta "Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA" foru sozietate publikoaren zerga arloko zuzenbide arauen alderdi batzuk arautzen dituena.
- Administrazio publikoko arautegi orokorra.


2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA

Urteko helburua: Errepide sarearen finantzaketa politika sendotzea.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Erabileragatik ordaintzeko sistema ezartzea edukiera handiko foru sarean.	Kopurua	125,93	125,93	125,93	141,43
A-636 errepidean bidesaria ezartzea. Proiektua idatzi eta gauzatzea. Jarduketa-planaren betetze-maila (%)	Kopurua	100,00	100,00	100,00	100,00

Joera

Erabileragatik ordaintzeko sistema ezartzea edukiera handiko foru sarean. – Kopurua



A-636 errepidean bidesaria ezartzea. Proiektua idatzi eta gauzatzea. Jarduketa-planaren betetze-maila (%) – Kopurua



Memoria

2022ko urtarrilaren 18an hasi zen kobrantza A-636 errepidean.

Aurrekontuaren exekuzioari dagokionez, 1.337.316,85 euro ziurtatu dira obra-kontratuari eta obra-zuzendaritzako zerbitzu-kontratuari dagokienez (2022ko aurrekontuan 552.155,62 euro aurreikusi zen ziurtatzea). Lanak planifikatutakoaren arabera gauzatu diren arren, aurrekontuan jasotako zenbatekoaren eta gauzatutakoaren arteko aldea dagokio azken lanen ziurtagiriak eta azken likidazioa 2022an ziurtatzeari.

Helburu hau lortzeko, foru sozietateko departamentuetan, lan hauek planifikazioaren arabera amaitzeko burutu beharreko ekintzak aurrera eraman dira.

Adierazlearen neurketa-unitatea zenbakia dela agertu arren, adierazitako balioak ekintza-planaren betetze-maila adierazten du ehunekotan.

Gipuzkoako lurralde historikoko A-15 eta N-I ahalmen handiko errepideen zati jakin batzuk erabiltzeagatiko kanona arautzen zuen 6/2018 Foru Arauaren deuseztasun-epaiari erantzunez (3. Garapen Hitzarmen Espezifikoa), 2021eko abenduaren 3an, Foru Gobernu Kontseiluak 5/2021 Foru Araua onartu zuen, 2021eko abenduaren 3koa, Gipuzkoako A-15 eta N-I errepideetan salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzat erabiltzeagatiko kanona ezartzekoa. Horrela, Gipuzkoako N-I/A-15 errepideen trazadura osoak ibilgailu astunentzako ordainketa-sistema bat izango du (ezarritako jurisprudentziarekin bat datorrena). Ez zegoenez aurreikusita gertaera hori, ez zegoen beste jarduera-ildo gisa sartuta errepide-sarearen finantzaketa-politika sendotzeko helburuaren barruan. Hori dela eta, 5/2021 Foru Arauak araututako kobrantza-sistema berria ezartzeko ekintza honakoa helburu operatibo honetan sartuta dago:

Helburu operatiboa: Gipuzkoako gaitasun handiko ordainpeko errepide zatietan zerbitzu-mailak hobetzea.


Jarduketa ildoak: Azpiegiturak modu efizientean mantendu eta erabiltzaileei zerbitzu hobereana emateko beharrezko inbertsioak burutzea.

Helburu operatibo horrek biltzen dituen inbertsioak dira ez daudenak zuzenean lotuta 2019-2023 legealdirako zehaztutako gainerako helburu estrategikoekin eta operatiboekin.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Bidesariak kobratzeko sistema ipintzea A-636 errepidean.



Ordainketa kredituak


	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	589.102,50	1.474.579,48		
1.1 Ekintza				
A-636. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	589.102,50	1.474.579,48		100,00

Urteko helburua: Edukiera handiko sarearen konexioak hobetuko dituzten proiektuak abian ipintzea, baita industria eremuen eta hiriguneen irisgarritasuna hobetzera bideratuak eta sarearen segurtasuna eta funtzionaltasuna handituko dutenak ere.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Proiektuak garatzea: A-15/N-1 lotura gauzatzea, GI-631 errepidea hobetzea Azkoitia eta Urretxu bitartean, eta Europa osoan erreferente izango den garraio zentro bat edukitzea, segurtasun eta zerbitzu maila dagokienez.	Ehunekoak	25,00	15,00	25,00	100,00
Bazkardon A-15/N-I lotunearen hobekuntza proiektua idaztea eta izapidetzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%)	Kopurua	25,00	75,00	30,63	100,00
Garraio Zentro Integrala abian jartzeko eraikuntza-, instalazio- eta ustiapen-proiektuak idatzi, lizitatu eta gauzatzea. Jarduketa-planaren betetze-maila (%)	Kopurua	100,00	100,00	100,00	100,00

Joera


Proiektuak garatzea: A-15/N-1 lotura gauzatzea, GI-631 errepidea hobetzea Azkoitia eta Urretxu bitartean, eta Europa osoan erreferente izango den garraio zentro bat edukitzea, segurtasun eta zerbitzu maila dagokienez. – Ehunekoa



Bazkardon A-15/N-I lotunearen hobekuntza proiektua idaztea eta izapidetzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%) – Kopurua



Garraio Zentro Integrala abian jartzeko eraikuntza-, instalazio- eta ustiapen-proiektuak idatzi, lizitatu eta gauzatzea. Jarduketa-planaren betetze-maila (%) – Kopurua



Memoria

Bi dira helburu hau betetzera bideraturiko jarduketa ildoak:

-Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.

2020ko azaroaren 23an sinatu zen obra-proiektua idazteko zerbitzu-kontratua (Bazkardon (Andoain), Tolosarako noranzkoan, A-15 eta N-I errepideen arteko lotura hobetzeko trazadura-proiektua eta eraikuntza-proiektua idaztea), eta 2022ko martxoaren 21ean zerbitzua jaso izanaren akta. Kontratua deuseztatu zen, haren irismenak ez zituelako estaltzen Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak eskatutako azterlana zabaltzeko behar ziren jarduerak eta zereginak. 2022an, 112.504,66 euro ziurtatu dira.

Azterlana zabaltzeko eskaerari erantzuteko, 2022ko urriaren 28an 607.653,82 euroan (BEZ barne) esleitu zen A-15 errepidea Bazkardon N-I errepidearekin lotzeko eta haren ingurunearekin Andoainen integrazteko eraikuntza-proiektua idazteko zerbitzua emateko kontratua. Kontratuak 19 hilabeteko iraupena du, eta 2023an eta 2024an egingo da azterlana.

239.656,21 eurokoa zen 2022ko ekitaldirako onartutako aurrekontua; aurrekontuak egiteko unean oraindik ez zen aurreikusten azterlana zabaltzea eta, beraz, lehen kontratua deuseztatzea.

2023ko ekitaldirako kreditu konprometituari dagokionez, aurreikusi zen 89.494,35 euro ziurtatzea 2020ko azaroaren 23an sinatu zen obra-proiektua idazteko zerbitzu-kontratua amaitzeko. Kontratu hura deuseztatu zenez, kontratu berriaren arabera, aurreikusten da 445.989,07 euro zirtatzea 2023an eta 142.050,83 euro 2024an.

-Astigarraga eta Oiartzungo garraio zentroa martxan ipintzea.

2022ko urtarrilaren 28an sinatu zen AP-8 autobidean Astigarraga eta Oiartzungo Garraio Zentro Integrala (GZI) konserbatu, mantendu eta ustiatzeko zerbitzuaren hasiera emateko akta. CIT AUTOPISTA 8 SA da zerbitzuaren emakida-kontratuaren enpresa esleipenduna.

2022ko urtarrilaren 28an, BIDEGIren Administrazio Kontseiluak onartu zuen Oiartzunen GZIa eraikitzeke proiektua gauzatzeko obraren azken ziurtagiria, eta otsailaren 25ean, Astigarragan CITa eraikitzeke proiektuarena eta Astigarragan eta Oiartzunen GZIaren gainegiturari dagozkien lanen proiektuarena.

1.728.137,99 euro ziurtatu dira 2022an, AP-8 autobidean, Astigarragako eta Oiartzungo GZIa eraikitzeke lanekin erlasionaturiko obra-kontratuei eta obra-zuzendaritzakoei dagokienez.

Aurrekontuetan jasotako zenbatekoaren eta gauzaturakoaren arteko aldea hiru eraikuntza-kontratuen azken ziurtagiriak 2022an onartu izanaren ondorio da.

Helburu hau lortzeko, foru sozietateko departamentuetan, lan hauek planifikazioaren arabera amaitzeko burutu beharreko ekintzak aurrera eraman dira.

Adierazlearen neurketa-unitatea zenbakia dela agertu arren, adierazitako balioak ekintza-planaren betetze-maila adierazten du ehunekotan. Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idazteari eta lanak izapidetzeari dagokionez, kontuan hartuta azterlana zabaldu dela, ekintza-plan berriari dagokionez, % 31 bete da 2022ko itxieran.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.



% 40,00



% 40,00



% 20,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	254.993,73	112.504,94		
1.1 Ekintza				
Hobekuntza proiektua idatzi eta dagozkion tramiteak egin.	254.993,73	112.504,94		80,00

Datozen urteetako gastuak

	Hasierako datozen urteetako gastuak	Konprometituta ko datozen urteetako gastuak
Jarduketa ildo, guztira	90.389,18	588.039,63
1.1 Ekintza	90.389,18	588.039,63
Hobekuntza proiektua idatzi eta dagozkion tramiteak egin.		

2. Jarduketa ildo:

Astigarraga eta Oiartzungo garraio zentroa martxan ipintzea.



% 20,00



% 40,00



% 40,00

Ordainketa kredituak


	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	370.453,86	1.850.173,10		
2.1 Ekintza	370.453,86	1.850.173,10		100,00
Garraio Zentro Integrala. Proiektuak idatzi: eraikuntza, instalakuntzak eta ustiapena. Proiektuak gauzatu eta zerbitzuan jarri.				

Entitatearen jarduketa operatiboa
Urteko helburua: Zarataren aurkako ekintza-plana betetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Zarataren aurkako ekintza-plana betetzea. Ekintza-Planaren betetze-maila (%)	Kopurua	33,33	75,00	50,00	100,00

Joera

Zarataren aurkako ekintza-plana betetzea. Ekintza-Planaren betetze-maila (%) - Kopurua



Memoria

Ingurumen-atalean, eta 2020ko urtarrilaren 28an onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Errepideen zaratari aurre egiteko plana" betez, honako lanak ziurtatu dira:

-AP-8ko 66+400 eta 67+300 KPen artean, Elgoibar, zarataren aurkako pantailak jartzeko obra-zuzendaritzako zerbitzu-kontratuaren likidazioa: 11.179,10 euro

-GI-20 errepideko 1+250 eta 2+400 KPen artean, Errenteriako udalerrian, zarataren aurkako pantailak ezartzeko lanak: 322.007,53 euro

Obra 2022ko abuztuan hasi zen eta 2023ko lehen seihilekoan amaituko da.

Bestalde, 2022an esleitu dira AP-8 autobideko 38+130 eta 39+512 KPen artean, Zarautz parean, zarataren aurkako pantailak jartzeko obra-kontratu eta obra-zuzendaritzako zerbitzuarena.

2022ko aurrekontuan 2.792.000 euro aurreikusi zen ziurtatzea zarataren aurkako ekintzengatik; errealitatean, 333.186,63 euro ziurtatu dira. Ziurtatutako zenbatekoaren eta aurreikusitako aurrekontuaren arteko aldea obren egikaritze-aurreikuspenaren eta egikaritze errealearen arteko desbideratzeen ondorio da. 2022ko aurrekontua egiteko orduan, aurreikusi zen Errenteria parean zarataren aurkako pantailak ezartzea eta Zarautz parean jartzen hastea. Errenteriako lanak 2023ko lehen seihilekoan amaituko dira, eta Zarautzkoak 2023tik 2024ra bitartean egingo dira lanak 2023ko urtarrilean hasi dira, eta aurreikusten da 2024ko lehen seihilekoan amaitzea. Halaber, aurreikusi zen 2022an idaztea Oiartzun parean zarataren aurkako pantailak jartzeko proiektua, eta, azkenean, urtebete atzeratu da proiektuaren idazketa 2023an egingo da eta obra gauzatzea 2024an egingo da.

2023ko ekitaldirako kreditu konprometituei dagokienez, aurreikusi zen 1.315.000 euro ziurtatzea Zarautz parean zarataren aurkako pantailak jartzeko lanak amaitzeko. Errealitatean, 2022ko ekitaldia ixtean, 4.828.728,09 eurokoa da esleitutako eta lizitatutako kontratuak gauzatzeko dagoen zenbatekoa: 4.404.966,29 euro 2023an Errenteria pareko lanak amaitzeko eta Zarautzkoak egiteko, eta 423.761,80 euro 2024an Zarautzko lanak amaitzeko.


Helburua betetzeko egindako jardueri dagokienez, Foru Sozietateko departamentuetan beharrezko jarduerak egiten dira lan horiek egin daitezten.

Adierazlearen neurketa-unitatea zenbakia dela agertu arren, adierazitako balioak ekintza-planaren betetze-maila adierazten du ehunekotan. 2022a itxita, %50,00 da burutze-maila; izan ere, 2021-2023 urteen artean, asmoa da hiru eremutan ezartzea zarataren aurkako pantailak: Elgoibar, Zarautz eta Errenteria parean. Hortaz, heren bat osorik eta beste herenaren erdia egin da.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea



Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	2.975.985,78	356.714,33		
1.1 Ekintza Zarataren aurkako ekintza-plana. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	2.975.985,78	356.714,33		80,00

Datozen urteetako gastuak


	Hasierako datozen urteetako gastuak	Konprometituta ko datozen urteetako gastuak
Jarduketa ildoak, guztira	1.315.162,63	4.828.728,24
1.1 Ekintza Zarataren aurkako ekintza-plana. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	1.315.162,63	4.828.728,24

Urteko helburua: AP-8/AP-1 autobideetan, bidesarietako kobrantza-sistemak berritzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Kobrantza-sistemak berritzeko proiektua idaztea, lizitatzea eta gauzatzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%)	Kopurua	11,00	60,00	41,14	100,00

Joera

Kobrantza-sistemak berritzeko proiektua idaztea, lizitatzea eta gauzatzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%) – Kopurua



Memoria

2022an Zarautz Barrera eta Zarautz M/O-ko kobrantza-gunea berritzeko lanekin jarraitu da. Lanak 2021eko irailean hasi ziren eta 2022ko abenduaren 23an sinatu zen obraren harrera-akta. 2022an 4.547.776,86 euro ziurtatu dira guztira obra-lanengatik eta obra-zuzendaritzako zerbitzuagatik.

Bestalde, 2022ko ekainean sinatu zen kobrantza-guneak berritzeko proiektuak idazteko laguntza teknikoa emateko zerbitzu-kontratua. 2025aren amaieran amaituko da kontratua. 2022an 12.806,33 euro ziurtatu dira zerbitzu hori emateagatik.

2022ko aurrekontuan 5.379.166,67 euro aurreikusi zen ziurtatzea bidesarrietako kobrantza-sistemak berritzearen arloan, aurreikusi baitzen berritzea Irungo Bentetako kobrantza-gunea ere. Azken hori 2023an egingo da.

2023ko eta 2024ko ekitaldietarako kreditu konprometituei dagokienez, aurreikusi zen 6.348.333,33 euro ziurtatzea 2023an kobrantza-guneak berritzeko (amaitu Zarautz Barrera eta Zarautz M/O-koa, eta hasi eta amaitu Zarautz Ekialdekoa, Oiartzungoa eta Irun M/O-koa) eta 400.000 euro 2023an eta 1.100.000 euro 2024an kobrantza-sistemaren softwarea berritzeko. Errealitatean, 2022ko ekitaldia ixtean, 530.235,45 eurokoa da esleitutako eta lizitatutako kontratuak gauzatzeko dagoen zenbatekoa: falta da likidatzea Zarautz Barrera eta Zarautz M/O-ko kobrantza-gunea berritzeko obra-kontratua eta obra-zuzendaritzako zerbitzu-kontratua, eta 2025ean amaituko da kobrantza-guneak berritzeko proiektuak idazteko laguntza teknikoa emateko zerbitzu-kontratua.


Helburua betetzeko egindako jardueri dagokienez, Foru Sozietateko departamentuetan beharrezko jarduerak egiten dira lan horiek egin daitezten.

Adierazlearen neurketa-unitatea zenbakia dela agertu arren, adierazitako balioak ekintza-planaren betetze-maila adierazten du ehunekotan. 2022ko ekitaldiaren amaieran, 2021-2023 aldirako aurreikusitakoaren % 41 gauzatu da; 2021etik 2023ra bitarteko ekitaldietarako, planean jaso zen sei kobrantza-gune berritzea: Zarautz Barrera, Zarautz M/O, Irungo Bentak, Zarautz Ekialdea, Irun M/O eta Oiartzun. 2022ko itxieran, berrituak daude Zarautz Barrera eta Zarautz M/O-ko kobrantza-guneak, eta, obra horren garrantzia dela eta (aurrekontuan duen pisuan islatzen da), kobrantza-sistemak berritzeko planean jasotako aurrekontu osoaren % 41,14 gauzatu da 2022ko itxierarako.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Kobrantza-Guneen Berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea



Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	5.661.728,61	4.882.638,99		
1.1 Ekintza				
AP-8/AP-1 Kobrantsa-Guneen Berrikuntza. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	5.661.728,61	4.882.638,99		90,00

Datozen urteetako gastuak


	Hasierako datozen urteetako gastuak	Konprometituta ko datozen urteetako gastuak
Jarduketa ildoak, guztira	7.410.578,87	530.235,51
1.1 Ekintza		
AP-8/AP-1 Kobrantsa-Guneen Berrikuntza. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	7.410.578,87	530.235,51

Urteko helburua: Gipuzkoako gaitasun handiko ordainpeko errepide zatietan zerbitzu-mailak hobetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Gipuzkoako edukiera handiko bideetan kobratu beharreko tarteetan zerbitzu-mailak hobetzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%)	Ehunekoa	0,00	100,00	93,00	100,00

Joera

Gipuzkoako edukiera handiko bideetan kobratu beharreko tartetean zerbitzu-mailak hobetzea.
Jarduketa Planaren betetze-maila (%) – Ehunekoa



Memoria

Hiru dira helburua betetzera bideratutako jarduera-ildo nagusiak:

-Gipuzkoako gaitasun handiko ordainpeko errepide zatiien ezohiko mantentze-lanen urteko plana etengabe egokitzea Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena: AP-8/AP-1/A-636 autobideen ezohiko mantentze-lanen urteko planari dagokionez, 2022an 7.497.339,97 euro ziurtatu dira egindako lanengatik (AP-8/AP-1 autobideetan bidesarietako kobrantza-sistemak berritzeko egindako lanen ziurtagiriak kontuan hartu gabe, azken horiek ezohiko mantentze-lanen urteko planeko lanak badira ere, aurrekontu-planeko helburu zehatza dute).

Honakoa egin da:

SEGURTASUN-, ERREPIDE- ETA BACK-OFFICE- ALORREKO LAGUNTZA TEKNIKO ERREPIKAKORRA: 520.760,40 euro

Egiturazko kontratuak dira (beharrezkoak etengabe bai azpiegituraren ohiko ustiapenerako eta mantenurako, bai ezohiko berrinbertsioaren/kontserbazioaren kudeaketa bermatzeko), eta lege-eskakizunei erantzuten diete. 2023ko aurrekontuan ez da ezohiko mantentze-lanen urteko planeko partidatzat hartu; ohiko ustiapeneko gastua kontsideratu da.

BIDE-ZORUA: 4.149.740,21 euro

-AP-8 autobideko bide-zoruaren egitura birgaitzeko obrak amaitzea, 0+000 eta 7+500 KPen artean, Bilborako noranzkoan. Obrak 2021eko urrian hasi eta 2022ko urtarrilean amaitu ziren. (47.518,39 euro)

-BIDEGIK kudeatutako bide-sareko puntu berezietan bide-zorua dimentsionatzeko laguntza teknikoa, bai eta AP-8 eta AP-1eko zenbait tartetan errodadura-geruza berritzeko proiektua idazteko laguntza teknikoa ere. (21.982,00 euro)

-A-636 errepideko bide-zoruaren egitura birgaitzea, 0+000 eta 5+200 KPen artean. (4.080.239,82 euro)

ARRISKU GEOTEKNIKOAK: 1.826.359,34 euro

-Ezponden aldizkako azterketa geoteknikoa. (217.026,95 euro)

-Ezpondetako arriskuak murrizteko jarduketa zehatzak: 2021-2022-2023 kanpaina. (1.304.462,38 euro)

-AP-8 Bilboko galtzadan, 13+770 eta 13+980 KPen arteko betelan bat egonkortzeko lanak. Obra 2022ko azaroan hasi zen eta 2023ko lehen seihilekoan amaituko da. (106.327,35 euro)

-AP-8 autobidean, 7+850, 47+360 eta 67+320 KPetan, hiru ezponda egonkortzeko lanak. Obra 2022ko irailean hasi zen eta 2023ko lehen seihilekoan amaituko da. (175.992,66 euro)

-A-636 errepideko 17+050 eta 17+120 KPetan (Antzuola) lerradurak egonkortzeko proiektuak idaztea. (22.550,00 euro)

BIDE-SEGURTASUNA: 170.647,21 euro

-BIDEGIren errepide-sareko bide-segurtasunaren kudeaketa integraturako zerbitzu-kontratuaren zereginak. (73.039,30 euro)

-AP-1 autobideko transformazio-zentroetarako sarbideak hobetzeko lanak amaitzea. 2021eko irailean hasi ziren, eta 2022ko urtarrilean amaitu. (97.607,91 euro)

INGURUMENA: 696.123,35 euro

-BIDEGIK kudeatzen dituen AP-8 eta GI-20 errepideetako zeharkako drainatze-lanak birgaitzea. 1. sorta. Obra 2021eko uztailan hasi zen eta 2022ko otsailean amaitu. (298.526,90 euro)

-BIDEGIK kudeatutako AP-8 eta GI-20 errepideetako zeharkako drainatze-lanak birgaitzea. 2. sorta. Obra

Memoria

2022ko uztailen hasi zen eta 2022ko azaroan amaitu. (396.629,25 euro)

AP-1 autobideko jaitsiera mailakatua luzatzeko eta Antontxu baserriaren inguruko zerbitzugerako ur beltzen saneamendua eta edateko uraren hartuneen kanalizazioak egiteko proiektuko desjabetze-espeditentea kudeatzeko laguntza-teknikoa. (967,20 euro)

EGITURAK:

-2022ko urrian lizitatu zen 38+370 KPan azpiko pasabidea birgaitzeko eta handitzeko eta 38+600 KPtik Bilbo-Behobiarako noranzkoan AP-8an errei gehigarri bat egiteko eraikuntza-proiektua.

JARDUKETA BEREZIAK - KONTINGENTZIAK: 133.709,46 euro

-AP-8 autobidean Zumaiako lotunetik Bizkaiko mugaraino hirugarren erreia sortzeari eta trazadura hobetzeari buruzko informazio-azterlana idaztea. 2022ko maiatzean sinatu zen kontratua eta 2025ean amaituko da. (119.859,46 euro)

-AP-8ko 22+400 KPan Donostiako Bigarren Ingurabideko zerbitzugerak berrantolatzeke proiektua idaztea. (13.850,00 euro)

11.827.279,61 eurokoa zen 2022ko ekitaldirako onartutako aurrekontua. Ziurtatutako zenbatekoaren eta aurreikusitako aurrekontuaren arteko aldea obren egikaritze-aurreikuspenaren eta egikaritze errearen arteko desbideratzeen ondorio da.

2023, 2024 eta 2025eko ekitaldietarako kreditu konprometituei dagokienez, aurreikusi zen 1.255.620,16 euro ziurtatzea arrisku geoteknikoekin eta bide-segurtasunarekin erlasionaturiko lanetarako.

2022ko ekitaldia ixtean, 5.513.769,03 eurokoa da esleitutako eta lizitatutako kontratuak gauzatzeko dagoen zenbatekoa honela banatuta:

BIDE-ZORUA: 108.805,88 euro (2023an)

ARRISKU GEOTEKNIKOAK: 1.482.149,59 euro (2023an), 228.467 euro (2024an) eta 191.355.50 euro (2025ean)

BIDE-SEGURTASUNA: 97.116,48 euro (2023an)

ITS: 68.301,29 euro (2023an)

EGITURAK: 1.458.481,54 euro (2023an), 639.248,88 euro (2024an) eta 366.171,33 euro (2025ean)

JARDUKETA BEREZIAK-KONTINGENTZIAK: 121.063 euro (2023an), 635.774 euro (2024an) eta 116.834,54 euro (2025ean)

-Azipiegiturak modu efizientean mantendu eta erabiltzaileei zerbitzu hoberena emateko beharrezko inbertsioak burutzea 2022an, honako hauek egin dira:

Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena:

-AP-1 autobidean Lesarriko tunelean egin beharreko lanak zehazteko proiektua idaztea: 107.933,00 euro.

-Arrasateko udalerrian dagoen AP-1 autobideari atxikitako Osinalde II soberakinen biltegiaren ekialdeko muga mugarritzeko lanak (2.100,00 euro), eta Osinalde II "C06 betelana" izeneko betelanaren gainean dauden metaketak hondeatzeko proiektuaren separata idaztea (2.322,39 euro). Aurreikusten da indusketa 2023an egitea.

5.520.783,76 eurokoa zen 2022ko ekitaldirako onartutako aurrekontua:

Lesarriko tunela birgaitzeko: 3.045.296,69 euro

ITS: 2.109.487,07 euro

Errepideko trazadura hobetzeko: 366.000 euro

Lesarriko tunela zaharberritzeari dagokionez, lanak 2022an hastea aurreikusi zen; proiektua idatzi eta obra lizitatu da 2023, 2024 eta 2025ean egiteko.

ITS atalean, aurreikusi zen AP-8 autobideko instalazioen kontrol-softwarea migratzen hastea plataforma ireki, malguago eta gaur egungoetara migratzeko; eta baita komunikazio-sarearen zati bat berritzea ere (elektronika aktiboa: switch-ak eta routerrak). 2023ra atzeratu da bi jarduera horiei ekitea. Gainera, ezohiko mantentze-lanen urteko planera birsailkatu dira bi jarduera horiek.

Azkenik, errepideko trazadura hobetzeari dagokionez, jarduera hori ere ezohiko mantentze-lanen urteko planera birsailkatu da. Lehen aipatu dugu JARDUKETA BEREZIAK-KONTINGENTZIAK atalean: AP-8 autobidean Zumaiako lotunetik Bizkaiko mugaraino hirugarren erreia sortzeari eta trazadura hobetzeari buruzko informazio-azterlana idaztea. 2022ko maiatzean sinatu zen kontratua eta 2025ean amaituko da (119.859,46 euro ziurtatu dira 2022an).

Irizpide- eta plangintza-aldaketa horiek 2023ko ekitaldirako konprometitutako kredituei ere eragin diete. Aurreikusi zen 13.761.000 euro ziurtatzea 2023an:

Lesarriko tunela birgaitzeko: 3.695.000 euro

ITS: 7.551.000 euro

Errepideko trazadura hobetzeko: 2.515.000 euro

2022ko ekitaldia ixtean, aurreikusten da 23.347.752,18 euro ziurtatzea 2023, 2024 eta 2025ean Lesarriko tunela birgaitzeko lanekin erlasionaturiko eta 2022an lizitatutako kontratuen ondorioz, honela banatuta:

Memoria

2023: 5.052.372,26 euro
2024: 10.885.074,89 euro
2025: 7.410.305,03 euro

Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena:

-N-I eta A-15 errepideak kobratzeko sistema zabaltzea. Obrak 2022ko urtarrilean hasi ziren, eta kobrantza-sistema martxan dago 2023ko urtarrilaren 23tik. 2022an ziurtatutako lanen zenbatekoa 11.605.690,90 eurokoa da, eta obraren exekuzioa eta zuzendaritza-zerbitzua likidatzeko daude.

17.939.649,13 eurokoa zen 2022ko ekitaldirako onartutako aurrekontua. Benetan ziurtatutako zenbatekoarekin dagoen alde honi dagokio: alde batetik, 2022ko aurrekontua egiteko garaian, lizitazio-zenbatekoak kontuan hartu izanari; eta, bestetik, obraren exekuzio-estimazioaren eta benetan ziurtatutakoaren arteko ohiko desbideratzeari.

Bi aldagai horiek 2023ko ekitaldirako konprometitutako kredituari ere eragin diote. Aurreikusi zen 7.431.801,80 euro ziurtatzea 2023an. 2022ko ekitaldia ixtean, aurreikusten da 11.170.374,41 euro ziurtatzea 2023an.

-Gipuzkoako gaitasun handiko ordainpeko errepide zatien ustiapena, mantentze eta kontserbazioaz arduratzen den operadorearen urteko ustiapen-planaren etengabeko egokitzapena

Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena:

BIDEGIk kudeatzen dituen errepideak eta kobrantza-sistema ustiatzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko operadoreak ematen duen zerbitzuari dagokienez (AP-8, GI-20, A-636 (lehen, GI-632) eta AP-1 Gipuzkoako lurralde historikoan, baita zerrendatutako errepide horiekin lotzen diren bide-adarrak eta orotariko instalazioak, aparkalekuak, partzelak eta eraikinak, zerbitzuguneak eta jatetxe-arloko eremuak izan ezik), 2022ko urteko kostua 40.314.791,59 eurokoa izan da. Zenbateko horrek barne hartzen du 2022ko ekitaldiko likidazioaren aurreikuspena: 797.205,11 euro BIDEGIren alde.

Horrez gain, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2022ko uztailaren 1ean, 2021eko ekitaldia likidatzeko proposamena onartu zuen: BIDEGIren alde 81.166,12 euroko saldoa.

Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena:

2017. eta 2019. urteetan instalatutako kobrantza-sistemaren ekipamendua kontserbatzeko eta mantentzeko kostua 1.051.555,26 eurokoa izan da 2022ko ekitaldian.

Helburua betetzeko egindako jardueri dagokienez, Foru Sozietateko departamentuetan beharrezko jarduerak egiten dira lan horiek egin daitezten eta ahalik eta jarraipen zehatzena egiten da.

Adierazlearen neurketa-unitatea zenbakia dela agertzen den arren, adierazitako balioak ekintza-planaren betetze-maila adierazten du ehunekotan. Ziurtatutako zenbatekoa aurreikusitakoa baino txikiagoa izan arren, jarduera-ildoak osatzen dituzten ekintzen aurrerapena eta horiek aurrekontuan duten pisua kontuan hartuta, helburuaren betetze-maila % 93koa da 2022ko ekitaldian.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.



% 45,00



% 45,00



% 10,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	81.748.545,16	63.953.392,24		
1.1 Ekintza				
Operadorearen urteko ustiapen-plana etengabe egokitzea, Gipuzkoako gaitasun handiko bideetan kobratu beharreko tarteak ustiatu, mantendu eta kontserbatzeari dagokionez.	44.675.780,64	44.200.629,31		100,00
1.2 Ekintza				
Gipuzkoako ahalmen handiko bideetan kobratu beharreko errepide zatien ezohiko mantentze-eta kontserbazio-plana etengabe egokitzea.	12.444.275,08	8.026.782,55		95,00
1.3 Ekintza				
Azpiegiturak eraginkortasunez kontserbatzeko eta erabiltzaileari zerbitzurik onena emateko beharrezkoak diren inbertsioak egitea.	24.628.489,44	11.725.980,38		80,00

Datozen urteetako gastuak


	Hasierako datozen urteetako gastuak	Konprometituta ko datozen urteetako gastuak
Jarduketa ildoak, guztira	22.885.118,32	40.031.895,65
1.2 Ekintza		
Gipuzkoako ahalmen handiko bideetan kobratu beharreko errepide zatien ezohiko mantentze-eta kontserbazio-plana etengabe egokitzea.	1.311.094,12	5.513.768,95
1.3 Ekintza		
Azpiegiturak eraginkortasunez kontserbatzeko eta erabiltzaileari zerbitzurik onena emateko beharrezkoak diren inbertsioak egitea.	21.574.024,20	34.518.126,70

Urteko helburua: Finantza-betebeharrak betetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Zorren zerbitzuaren estaldura ratioa $\geq 1,15$	Kopurua	1,33	1,15	1,68	1,15

Joera

Zorraren zerbitzuaren estaldura ratioa $\geq 1,15$ - Kopurua



Memoria

BIDEGIk bere finantza-konpromiso guztiak bete ditu Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) eta Merkataritza Bankuaren maileguen amortizazioei dagokienez, nahitaezko kontratu-egutegiaren arabera. Interesak ordaintzeko 21.488.984,25 euro erabili dira guztira, eta amortizazioak ordaintzeko, berriz, 44.301.880,94 euro.

2022an trafikoa berreskuratu izanak agerian utzi du Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmenaren (1GBH) xede den Proiektuaren indarra pandemia baten ondoriozko mugikortasunaren murrizketak diru-sarreretan izan duen eragina gainditzeko. Horri esker, Finantzaketa Kontratuen zenbait klausula aldatu ahal izan dira, proiektuaren egungo egoerara egokitzeko eta, horrela, kudeaketa errazteko. Gaur egun, eraikita eta martxan daude Proiektuko errepede guztiak (AP-1/AP-8/A-636); ez dago gaitasun handiko errepede berririk eraikitzeko. Hori dela eta, azpiegitura horietan berrinbertitzeko jarduketek ez dakarte errepede-sarea handitzeko kilometro berriak eraikitzea. Beraz, aurrerantzean, ezin dira bereizi birjarpen handiak/ezohiko mantentzea eta inbertsioak. Horrenbestez, 2023ko otsailaren 7an, finantzaketa-kontratuak berritu ziren; besteak beste, honetarako:

-Aldatu honako definizioak: "Zorraren Zerbitzua Aurreko Kutxa-Fluxua" eta "Kutxa-Fluxu Operatiboa"; kontuan ez hartzeko birjarpen handietan edo ezohiko mantentze-lanetan egindako inbertsioak eta Birjarpen Handien Erreserba Kontura egindako zuzkidura.

2022ko ekitaldiaren itxierako Zorraren Zerbitzuaren gaineko Estaldura Ratioa (ZZER), 2023ko otsailaren 7an berritutako Finantzaketa Kontratatuaren arabera kalkulatu, 1,83 izan da. 2023ko otsailaren 7an sinatutako kontratuen aldaketa kontuan hartu gabe kalkulatu, 1,68 zatekeen.

Finantzaketa-kontratuak ezartzen dute izan behar duela 1,15 edo handiagoa.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Finantza-betebeharrak betetzea

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	65.352.511,37	65.790.865,19		
1.1 Ekintza				
Finantza-betebeharrak betetzea.	65.352.511,37	65.790.865,19		100,00

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Mugikortasuna eta antolaketa egokiak izatea lurraldean

Beharraren eboluzioa:

Genero-ikuspegia txertatzea.

Kuantifikazioa: 462.441,06 (% 0,25)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkartza eta/edo postu publikoetan.	(% 100,00)	Ea.9.3.3. Zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo modu aktiboan sustatzen ari diren erakundeak ikusarazteko laguntza ematea.	100,00	

HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

Beharraren eboluzioa:




Erabat bermatzea euskararen erabilera, bai erabiltzaileari zerbitzua ematean, bai lan egitean.

Kuantifikazioa: 442.006,28 (% 0,24)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
2.1. Bezeroekiko (pertsoneko) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 100,00)	Erabiltzaileei informazioa euskaraz zein erdaraz ahalbidetzen da	100,00

GJH
Kuantifikazioa: 184.399.767,30 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 3-OSASUNA ETA ONGIZATEA Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.		415.036,60	235.215,85
Helburura 3.6 - Gipuzkoan istripuek eragindako heriotzen eta lesioen kopurua murriztea.		415.036,60	235.215,85
Jarduketa ildoak			
Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.		45.001,98	235.215,85
Astigarraga eta Oiartzungo garraio zentroa martxan ipintzea.		370.034,62	
 9-INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.		33.538.950,25	20.740.637,91
Helburura 9.1 - Azpiegitura fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea, garapen ekonomikoa eta giza ongizatea bultzatzeko, pertsona guztiek irispide eskuragarria eta bidezkoa izan dezaten ahalegin berezia eginez.		33.538.950,25	20.740.637,91
Jarduketa ildoak			
Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea		160.521,45	2.172.927,71
Kobrantsa-Guneen Berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea		2.929.583,39	318.141,31
Bidesariak kobratzeko sistema ipintzea A-636 errepedean.		884.747,69	
Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.		45.001,98	235.215,85
Astigarraga eta Oiartzungo garraio zentroa martxan ipintzea.		740.069,24	
Gipuzkoako errepedeak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.		28.779.026,51	18.014.353,04
 11-HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.		30.315.339,04	20.240.304,30
Helburura 11.2 - Guztiontzat seguruak, eskuragarriak, irisgarriak eta jasangarriak diren garraio sistemetakako sarbidea ematea, eta bide segurtasuna hobetzea, bereziki garraio publikoa zabalduz, eta arreta berezia jarriz kalteberatasun egoeran dauden pertsonen, emakumeen, desgaitasunen bat duten pertsonen eta adinduen beharrei.		740.069,24	
Jarduketa ildoak			

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Astigarraga eta Oiartzungo garraio zentroa martxan ipintzea.		740.069,24	
Helbubura	11.6 - Gipuzkoako ingurumen inpaktu negatiboa murriztea, arreta berezia eskainiz airearen kalitateari eta udal hondakinen eta bestelako enbudeaketari.	29.575.269,80	20.240.304,30
Jarduketa ildoak			
Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea		160.521,45	2.172.927,71
Kobrantsa-Guneen Berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea		488.263,90	53.023,55
Bidesariak kobratzeko sistema ipintzea A-636 errepidean.		147.457,95	
Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.		28.779.026,51	18.014.353,04
	16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	74.151.542,38	4.762.740,97
Helbubura	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	74.151.542,38	4.762.740,97
Jarduketa ildoak			
Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea		35.671,43	482.872,82
Kobrantsa-Guneen Berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea		1.464.791,70	159.070,65
Finantza-betebeharrak betetzea		65.790.865,19	
Bidesariak kobratzeko sistema ipintzea A-636 errepidean.		442.373,84	
Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idatzea, eta lanak izapidetzea.		22.500,99	117.607,93
Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.		6.395.339,22	4.003.189,56
Guztira		138.420.868,27	45.978.899,03

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.843.481,00	1.601.101,92	86,85
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	62.404.966,00	55.759.710,28	89,35
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS	21.012.450,00	21.488.984,25	102,27
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	85.260.897,00	78.849.796,45	92,48
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	27.390.543,00	15.269.192,41	55,75
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	27.390.543,00	15.269.192,41	55,75
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS	44.301.881,00	44.301.880,94	100,00
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	44.301.881,00	44.301.880,94	100,00
Guztira / Total	156.953.321,00	138.420.869,80	88,19

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako datozen urteetako gastuak Gastos Futuros iniciales	Konprometitutako datozen urteetako gastuak Gastos futuros comprometidos	Konprometitutako datozen urteetako gastu % % gastos futuros comprometidos
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	9.103.953,00	6.044.004,46	66,39
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	9.103.953,00	6.044.004,46	66,39
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	22.597.296,00	39.934.894,57	176,72
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	22.597.296,00	39.934.894,57	176,72
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	31.701.249,00	45.978.899,03	145,04

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak Gastos Futuros	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	87.392,95	1.513.708,98		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	131.905,17	55.627.805,10		6.044.004,46
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS		21.488.984,25		
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	219.298,12	78.630.498,33		6.044.004,46
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	3.217.959,40	12.051.231,48	588.039,63	39.346.854,94
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	3.217.959,40	12.051.231,48	588.039,63	39.346.854,94
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS		44.301.880,94		
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras		44.301.880,94		
Guztira / Total	3.437.257,52	134.983.610,75	588.039,63	45.390.859,40
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	2,19	86,00	1,85	143,18

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS				
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS				
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES	147.291.513,00	164.961.121,50	100,00	
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	147.291.513,00	164.961.121,50	112,00	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	1.384.507,00			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	1.384.507,00			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS	8.277.301,00			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	8.277.301,00			
Guztira / Total	156.953.321,00	164.961.121,50	105,10	